

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Irargariak

KULTURA ETA KIROL SAILA

129/2021 Foru Agindua, maiatzaren 4koa. Arabako lurralde historikoko eta Trebiñuko enklabe ko kirol-klub eta -elkarteak mantentzeko dirulaguntzen deialdia onartzea

Kultura eta Kirol Saileko Kirol Zerbitzuak Arabako Kirol Federazioei atxikitako klubei eta kirol-elkarteei 2021. urtean laguntza ekonomikoa ematea aurreikusten du. Horretarako, laguntza honen deialdia egin du.

Arabako Lurralde Historikoko 2021eko aurrekontua betearazteari buruzko urtarrilaren 26ko 1/2021 Foru Arauak 70.2.01.77.01.481.00.13.0 "A plana. Kirol Klub eta Elkartek mantentzea" 70-0.090 lerroa izeneko aurrekontu-saila du, 85.841,64 euro dituen esleiturik.

Arabako Foru Aldundiak, Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren bidez (2019ko azaroaren 20ko ALHAO, 134. zk.) eta haren ondorengo aldaketen bidez, oinarri orokor arautzaileak onartu zituen, Kultura eta Kirol Sailaren eskumenen esparruan nor-gehiagoka-araubidean ematen diren diru-laguntzei aplikatzeko.

Horren ondorioz, dagokidan eskumenez baliatuz, hauxe:

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Arabako Kirol Federazioei atxikitako kirol-klub eta -elkarteentzako dirulaguntzen deialdia onartzea, 2020ko uztailaren 1etik 2021eko apirilaren 30era izan dituzten gastuetarako. I. eranskinean ezarritako oinarrien arabera.

Bigarrena. Deialdian aurkeztu beharreko agiriak onartzea. II. eta III. eranskinak dira.

Hirugarrena. Diruz lagundutako jardueraren finantzaketa 85.841,64 eurotan zehaztea, Arabako Foru Aldundiaren 2021eko ekitaldirako aurrekontuko 70.2.01.77.01.481.00.13.0 " A plana. Kirol Klub eta Elkartek mantentzea " aurrekontu-sailaren kontura (70-0.090 lerroa), erreferentzia zenbaki laburra 105.828.

Laugarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratzea.

Bostgarrena. Organo eskudunak, Kirol Zerbitzuaren proposamena ikusita, dagokion eba-zpena emango du, deialdia ALHAOn argitaratu eta gehienez ere sei hilabeteko epean. Gehie-nezko epea igaro eta berariazko ebazpenik eman ez bada, interesdunek eskabidea ezetsi egin dela ulertu ahal izango dute.

Seigarrena. Laguntza emateko edo ukatzeko ebazpena Administrazio Publikoen Administra-zio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 42. eta 43. artikuluetan aurreikusitako moduan jakinaraziko zaie eskatzaileei.

Zazpigarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du. Dena dela, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan xedatzen duenaren arabera, aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakiok Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari, hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edota zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurka egin dakiok bi hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, administrazioarekiko auzietarako

epaitegietan, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko maiatzaren 4a

Kultura eta Kirol Saileko diputatua
ANA M. DEL VAL SANCHO

Kirol zuzendaria
ANA ROSA LÓPEZ DE URALDE GÓMEZ

I. ERANSKINA

ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO ETA TREBIÑUKO ENKLABEKO KIROL KLUB ETA ELKARTEAK MANTENTZEKO DIRULAGUNTZA DEIALDIA

1. artikulua. Xedea eta helburua

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak ematea, kirol arloa berraktibatzea sustatzeko, eta bereziki COVID-19ak kaltetutako Arabako Lurralde Historikoko kirol klub eta elkarteak mantentzeko, Arabako Foru Aldundiak Arabaren ekonomia suspertzeko onetsitako planean ezarritakoaren arabera, eta Kultura eta Kirol Sailak lehiaketa bidez emango dituen dirulaguntzak arautuko dituzten oinarri orokorrak onetsi zituen Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuan xedatutakoaren esparruan, bai eta ondorengo aldaketetan xedatutakoaren esparruan ere.

2. artikulua. Emateko prozedura

Laguntza horiek norgehiagoka bidez emango dira.

3. artikulua. Aurrekontu egozpena

Dirulaguntzen zenbateko osoa ezin izango da inolaz ere izan helburu horretara bideratu den zuzkidura baino handiagoa, hau da, 85.841,64 euro baino gehiago. Zenbateko hori Arabako Foru Aldundiaren 2021eko gastu aurrekontuko "PlanA. Klubak eta kirol elkarteak mantentzeko laguntzak" izeneko 70.2.01.77.01.4.8.1.00.1.3 partidaren kontura ordainduko da.

4. artikulua. Zein elkarte edota erakunde eskura ditzaketen dirulaguntzak eta zeinek ez

1. Kirol talde eta/edo elkarteek honako baldintza hauek bete behar dituzte mota honetako laguntzak jaso ahal izateko:

- Arabako Lurralde Historikoan kokatuta egotea.
- Eusko Jaurlaritzako Kirol Erakundearen Erregistroan erregistratuta egotea.
- Arabako lurraldeko kirol federazioetako bati atxikita egotea.

2. Berariaz baztertuta geratuko dira deialdi honetatik honako tipologia hauetakoren batean dauden erakundeak:

- Goi mailako klubei laguntzak emateko Kirolaraba Fundazioaren deialdian dirulaguntza jaso duten kirol erakundeak.
- Kirol erakundeak, baldin eta beren talde edo ataletako batek kategoría absolutuko lehiaketa ofizialeko jardueretan parte hartzen badu edo parte hartu badu, kirol modalitate eta/edo espezialitate bereko maila gorenean, 2020ko irailaren 1etik 2021eko abuztuaren 31ra bitarteko denboraldian.
- Kirol erakunde profesionalak; halakotzat hartzen dira indarrean dauden araudian jasotakoak (LFP, ACB, etab.).

d) Atal honen aurreko letran aipatu ez diren eta kirolari profesionalak dituzten klubak.

e) Arabako Foru Aldundiarekin euren goi mailako taldeetako batentzako babes kontratua daukaten goi mailako kirol klubak edo taldeak. Egoera horretan dauden kirol klub eta elkarteek eskaerak aurkeztu ahalgo dituzte atal honen b) letran adierazitakoa baino kategoria txikiagoko taldeentzat, baldin eta deialdi honetan ezarritako gainerako baldintzak betetzen badituzte.

f) "Profesionaltzat" jo ez diren eta kontratu loturak eta/edo bestelakoak dituzten klubak, baldin eta lotura horiek klub profesionalekin edo halakotzat jotzen direnekin zuzenean badituzte (klub filialarekin, adibidez).

g) Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren hirugarren klausulan eta haren osteko aldaketetan jasotzen diren egoeretan dauden pertsonak edo erakundeak. Dekretu horrek onetsi zituen Kultura eta Kirol Sailak lehiaketa bidez emango dituen dirulaguntzak arautuko dituzten oinarri orokorrak.

3. Erakunde onuradunek egunean izan beharko dituzte Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak, bai dirulaguntza emateko ebazpena eman aurretik, bai dirulaguntza ordaindu aurretik. Kirol Zuzendaritzak egiaztatuko du erakunde eskatzaileak zerga betebeharrak egunean izateko baldintzak betetzen dituela, erakundeak horrek aurka egiten badu izan ezik; kasu horretan, egitate hori egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du, 39/2015 Legearen 28.2 artikulua arautzen duen bezala (Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak aldatu zuen lege hori, azken xedapenetatik hamabigarrenean).

5. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen gastuak eta aldia

1. Oro har, diruz lagundu ahal izango dira artikulua honen hurrengo ataletan diruz lagungarritzat jotzen diren gastu eta kontzeptuak, 2020ko uztailaren 1etik 2021eko apirilaren 30era bitartean (bi egun horiek barne) sortu eta ordaindu badira.

2. Honako hauek dira diruz lagun daitezkeen gastuak:

- Kirol jarduerarekin lotura duten espazio eta instalazioen alokairua.
- Ordaindutako amortizazioa eta interesak, kirol klubaren edo elkartearen egoitza dagoen higiezinaren erosketak finantzatzeko kredituenak.
- Aholkularitza eta kudeaketa.
- Komunikazioa eta zabalkundea.
- Lizentziak/fitxak/izen emateak/jokalarien mutualitatea.
- Bulego edo kirol material suntsikorra.
- Ibilgailuen alokairua, konponketak eta derrigorrezko aseguruak (txirrindularitzan bakarrik).
- Osasuna/farmazia/fisioterapia.
- Kanpoko garbiketa zerbitzuak edo Covid-19aren pandemiaren prebentziorako neurriek eragindako gastuak (eskuetarako gela, garbiketa, eskularruak, etab.).
- Kirol jarduerarekin/klubaren egoitzarekin lotutako instalazioetako ur, elektrizitate eta gas hornidura.
- Erakunde eskatzailearen erantzukizun zibileko aseguruak.
- Joan-etorriak. Hirugarrenekin kontratatutako lekualdatze kolektiboak faktura bidez justifikatu beharko dira. Mugitu beharreko pertsona kopurua dela-eta garraio kolektiboa gomendagarria ez bada, ibilgailu pribatuetan egindako joan-etorrien gastuen egiaztagiria aurkeztu ahal izango dira, eta kilometroko 0,29 euroko balioespena aplikatutako da (Lehiaketa ofizialetarako bakarrik; II. eranskina behar bezala beteta aurkeztu behar da).

3. Honako hauek ez dira diruz lagundu daitezkeen gastuak:

- Kirolarien egoitza.
- Material inbentariagarria.
- Ordezkaritza.
- Zehapenak.
- Mediku aseguruak eta istripu aseguruak.
- Soldatak, ordainsariak eta gizarte kotizazioak.
- Garaikurrak.

Diruz lagun daitezkeen epeari (2020ko uztailaren 1etik 2021eko apirilaren 30era) osorik ez dagozkion fakturak aldi horri dagozkion egunen proportzioan zenbatuko dira.

Zergak diruz lagundu daitezkeen gastuak dira, dirulaguntzaren pertsona edo erakunde onuradunak egiaz ordaintzen baditu. Ez dira dirulaguntza jaso dezaketen gastuak zeharkako zergak, baldin eta berreskuratu edo konpentsatu ahal badira, ez eta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere.

6. artikulua. Eskaerak aurkeztea

Kultura eta Kirol diputatuari zuzendutako eskabideak honako leku hauetan aurkeztuko dira:

- Arabako Foru Aldundiko Erregistro Orokorra.
- Vitoria-Gasteiz, Guardia eta Laudioko Ogasun Bulegoen Erregistroa.
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan jasotako gainerako erregistroak.

Hala ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, kasu guztietan telematikoki aurkeztera behartuta daude, egoitza elektronikoen bidez eskura daitezkeen berariazko izapidearen bidez (<https://egoitza.araba.eus/eu/-/kirol-klub-eta-elkarteak-mantentzeko-dirulaguntzak>), pertsona juridikoak, nortasun juridikorik gabeko erakundeak, elkargo bateko kide izatea eskatzen duen jarduera profesional bat egiten dutenak, jarduera horretan egiten dituzten izapideetarako, eta derrigortuta dagoen interesdun bat ordezkatzeko dutenak.

Horretarako, aldez aurretik, erakunde eskatzaileek Arabako Foru Aldundiak onartutako ziurtagiri elektronikoren bat eduki beharko dute. Informazio gehiago: <https://egoitza.araba.eus/eu/egoitza-elektronikoa/ezagutu-egoitza/nola-sartu>. Hori guztia Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoa alde batera utzi gabe.

Deialdian parte hartzen duen erakunde bakoitzak eskaera bakar bat aurkeztu beharko du, dituen modalitate edo espezialitateak gorabehera.

7. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak

1. Eskabidearekin batera, dirulaguntzaren xede diren gastuak justifikatzeko agiriak aurkeztu beharko dira. Dirulaguntzak justifikatzeko, fakturak eta merkataritzako trafiko juridikoan froga balio baliokidea duten gainerako dokumentuak aurkeztu beharko dira, edo eraginkortasun administratiboa dutenak. Honako agiri hauek aurkeztu beharko dira zehazki:

a) Egindako gastuen fakturak:

Gastuak justifikatzeko ez da onartuko honako datu hauek argi eta garbi azaltzen ez dituen fakturarik:

- Jaulkitzailea, haren izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.
- Hartzailea, haren izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.
- Gastuaren xedea.
- Data.
- Fakturaren zenbakia.

Orobat, ez dira onartuko justifikazio gastu gisa PFEZko (pertsone fisikoen errentaren gaineko zerga) konturako atxikipenei dagokien zerga araudia betetzen ez duten faktura edo ordainagiriak.

b) Diruz lagun daitezkeen 500,00 eurotik gorako gastuen banku ordainagiriak. Honako hauek onartuko dira:

- Bankuko jatorrizko ziurtagiria; bertan agertu behar dira, gutxienez, zenbatekoa, data eta ordainketaren edo transferentziaren onuraduna. Ziurtagiri hori izenpetuta aurkeztu beharko da, eta/edo bankuaren zigilua daukala.
- Jatorrizko fakturaren jaulkitzaileak sinatutako eta/edo zigilatutako ziurtagiria; bertan agertu beharko dira faktura zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa data.
- Posta arruntez jasotako jatorrizko banku laburpenak.
- Kontu korronteen libreten kopia konpultsatua, mugimenduak ageri dituenak.
- Posta elektronikoz jasotako banku laburpenak edo transferentzia agindu telematikoak, ordainketa edo transferentzia egin duen bankuaren zigiluarekin.
- Jatorrizko erosketa tiketak, zenbatekoa ordaindu dela egiaztatzen dutenak (merkataritza guneeetakoak, autobideetakoak, bidaia txartelak eta abar) edo jatorrizko fakturak, enpresa jaulkitzaileak jarritako zigiluarekin, ordainduta daudela adieraziz.

c) Arabako Lurralde Federazioaren ziurtagiria, erakunde eskatzailea federazio horri atxikita dagoela egiaztatzen duena (II. eranskina).

Ez da onartuko eskudirutan ordaintzea 2021erako indarreko araudian ezartzen den zenbatekoa edo hortik gorakoa, edo haren kontrabalioa atzerriko dirutan.

Aurreko paragrafoan aipatzen den zenbatekoa kalkulatzeko, baldin eta ondasun ematea edo zerbitzua zatikatu bada, eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira.

2. Laguntzen eskaera Arabako Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoan betetzeko unean, erakunde eskatzaileak erantzukizunpeko adierazpena sinatu beharko du, eta bertan adierazi emandako laguntza justifikatzeko aurkeztutako dokumentazioa (fakturak eta ordainketen frogagiriak) bat datorrela egiazki jatorrizko dokumentazioarekin, zeina erakundearen legezko egoitzan gordeta baitago. Instrukzio organoak, deialdietan erabakitako laginketa tekniken bidez, egokitzen dituen justifikazio agiriak egiaztatuko ditu, eta, horretarako, hautatutako jatorrizko gastuen eta ordainketen egiaztapenak bidaltzeko eskatu ahal izango die onuradunei.

3. Eskabidean jarri beharreko daturen bat edo aurreko ataleko nahitaezko agiriren bat falta bada, eskatzaileari eskatuko zaio hamar eguneko epean akatsa zuzendu edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala, eta ohartaraziko zaio, hala egin ezean, eskaera bertan behera utzi duela ulertuko dela. Administrazioak eskaera horren esanbidezko ebazpena eman eta jakinarazi beharko du.

8. artikulua. Aurkezteko epea

Eskabideak eta 7. artikuluan adierazitako dokumentazio guztia aurkezteko epea ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean hasi eta 2021eko ekainaren 11n 13:00etan amaituko da (biak barne).

9. artikulua. Prozeduraren instrukzioa eta balioespen irizpideak

1. Prozeduraren instrukzioa egiteko organo eskuduna Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Saileko Kirol Zerbitzua izango da. Zerbitzu horri dagokio onuradunek eta bidalitako dokumentazioak deialdi honetan ezarritako betekizun tekniko eta administratiboak betetzen dituztela egiaztatzea.

2. Laguntzak banatzeko, puntuazioaren arabera banaketa sistema bat aplikatuko da, honako arau hauek hurrenez hurren aplikatzean datzana:

- Erakunde eskatzaile bakoitzari puntu kopuru bat emango zaio, diruz lagundu daitezkeen gastuen guztizkoan oinarrituta, jarraian agertzen den taularen arabera.
- Ebazpen honen 4. artikuluan ezarritako betekizunak betetzen dituen erakunde bakoitzari esleitutako puntuak batuko dira.

• Ebazpen honen 3. artikuluan ezarritako laguntzaren zenbateko osoa erakunde eskatzaile guztiek lortutako puntuen baturarekin zatituko da. Zatiketa horren emaitza puntu bakoitzaren balio ekonomikoa izango da.

• Erakunde bakoitzari emandako puntu kopurua puntuaren balio ekonomikoarekin biderkatuko da; horrela, erakunde onuradun bakoitzari dagokion diru kopurua lortuko da.

GASTU KONPUTAGARRIAK, GUZTIRA	PUNTUAK
0 eta 499,99 euro artean	1
500,00 eta 999,99 euro artean	2
1.000,00 eta 1.499,99 euro artean	3
1.500,00 eta 1.999,99 euro artean	4
2.000,00 eta 2.499,99 euro artean	5
2.500,00 eta 2.999,99 euro artean	6
3.000,00 eta 3.499,99 euro artean	7
3.500,00 eta 3.999,99 euro artean	8
4.000,00 eta 4.499,99 euro artean	9
4.500,00 eta 4.999,99 euro artean	10
5.000,00 eta 5.499,99 euro artean	11
5.500,00 eta 5.999,99 euro artean	12
6.000,00 eta 6.499,99 euro artean	13
6.500,00 euro edo gehiago	14

3. Lortutako zenbatekoa edozein dela ere, honako muga hauek aplikatuko dira:

- gehienez ere, 5.000,00 euro erakundeko.
- diruz lagundu daitezkeen gastuen guztizko zenbatekoa.

4. Muga horiek aplikatu ondoren, erakunde eskatzaile guztiek jaso beharreko zenbatekoaren batura deialdiaren zenbateko osoa baino txikiagoa bada, bigarren banaketa bat egingo da soberako zenbatekoarekin, aurreko puntuan ezarritako muga ekonomikoetara iritsi ez diren erakundeen artean.

Bigarren banaketa horretarako, soberako kopurua zatituko da aurreko atalean ezarritako muga batera ere iritsi ez diren erakundeen puntu kopuruarekin; horrela, puntuari dagokion bigarren balio bat lortuko da. Puntuaren bigarren balio hori biderkatu egingo da erakunde bakoitzari emandako puntu kopuruarekin. Horrela, bigarren banaketa horretan esleitu beharreko diru kopurua lortuko da, eta lehen banaketari gehituko zaio.

Soberakin ekonomikorik badago, aurreko paragrafoan deskribatutako eragiketa errepikatuko da, harik eta deialdiaren gehieneko kopurura iritsi arte.

5. Ez dute dirulaguntzarik jasoko deialdiaren oinarrietan ezarritakoaren arabera balioetsi ondoren 150 eurora iristen ez diren eskaerak.

10. artikulua. Ebazpena

1. Eskaerak balorazio batzordeak aztertuko ditu. Batzordeburua Kirol Zerbitzuaren zuzendaria izango da eta honako hauek izango dira batzordekideak: Kirol Zerbitzuaren burua eta zerbitzu horri atxikitako teknikari bat. Kultura eta Kirol Saileko Idazkaritza Teknikoari atxikitako pertsona bat izango da idazkaria, eta hitza izango du, baina botorik ez.

Aurkeztutako eskaerak deialdian ezarritako irizpideen arabera alderatu ondoren, balorazio batzordeak txostena egingo du eta ebaluazioaren emaitza zehaztuko du, eta, beharrezkoa bada, esleitutako dirulaguntzen lehentasuna ezarriko du.

2. Ez da entzunaldi izapiderik izango, ebazpena emateko ez baitira aintzat hartuko eskatzaileek aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino.

3. Organo eskudunak bidezko ebazpena emango du, balorazio batzordeak proposatuta, gehienez ere sei hilabeteko epean, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, esan nahiko du eskaera ezetsi egin dela.

4. Dirulaguntza emateko ebazpenak jaso beharko du eskatzaileetako zeini ematen zaion dirulaguntza eta gainerako eskaeren berariazko ezespena.

5. Laguntza emateko edo ukatzeko ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie erakunde eskatzaileei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 43. artikulua xedatutakoari jarraikiz.

6. Erabakiak amaiera ematen dio administrazio bideari eta aukerako berraztertze errekurtsua aurkez daiteke horren aurka, erabakia eman duen organoaren aurrean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua xedatutakoaren arabera, hilabeteko epean, egintza jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke zuzenean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

11. artikulua. Erakunde onuradunen betebeharrak

Erakunde onuradunek Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 13. artikuluan ezarritako betekizunak bete beharko dituzte, bai eta deialdian eta dirulaguntza emateko ebazpenean bertan ezarritakoak ere, eta, zehazki, honako hauek:

a) Laguntza emandako xede zehatzerako erabili beharko dute.

b) Arabako Foru Aldundiak egindako egiaztatze jarduketak bete beharko dituzte, baita finantza kontrolak eta/edo aipatutako administrazio publikoko kontu hartzailetzak egindako kontrolak ere, bai eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arauetan aurreikusitakoak ere.

c) Aurkeztutako dirulaguntza eskaera balioesteko egoki irizitako argibide eta agiri guztiak eman beharko dizkiote Arabako Foru Aldundiari.

d) Deialdi honetan ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte, bai eta Arabako Foru Aldundiaren aurrekontuen kontura jasotako laguntza eta dirulaguntzak direla eta ezarritako gainerako betebeharrak eta eginkizunak ere.

e) Egiaztatu beharko dute baldintzak betetzen dituztela eta dirulaguntza emateko eta hartaz gozatzeko oinarri izan den jarduera egin dutela.

12. artikulua. Ordainketa

Dirulaguntza ordainketa bakarrean emango da, dirulaguntza emateko ebazpena eman ondoren.

13. artikulua. Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna

Deialdi honen bidez ematen diren laguntzak bateragarriak dira beste laguntza batzuekin, baldin eta ez bada gainditzen diruz lagundutako kontzeptuaren zenbatekoa. Muga horretara iritsiz gero, deialdi honetan emandako laguntzari gehiegizko zenbatekoa kenduko zaio.

Erakunde onuradunak jakinarazi egin beharko dio organo esleitzailari helburu bererako beste dirulaguntzarik edo laguntzarik eskuratu duen edo eskuratzeko eskaerarik egin duen, estatuko nahiz nazioarteko beste edozein administrazio edo erakunde publikok emandakoak edo edozein entitate edo erakunde pribatuk emandakoak izan.

14. artikulua. Publizitatea


1. Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da.

2. Era berean, Arabako Foru Aldundiaren web orrian jarriko da ikusgai: www.araba.eus, Herritarrentzako zerbitzuak / Laguntzak eta dirulaguntzak eta Kirol Zerbitzua / Laguntzak eta dirulaguntzak.

3. Herritarrei diruz lagundutako jardueraren berri emateko erakunde onuradunak egiten dituen liburuxkak, kartelak eta bestelako euskarriak bi hizkuntza ofizialetan argitaratu beharko dira. Gainera, publizitate horretan hizkuntza eta irudiak berdintasunez eta sexismorik gabe erabili beharko dira, eta emakumeen eta gizonen presentzia orekatua eta estereotiporik gabea bermatu.

15. artikulua. Azken klausula

Erabaki honetan ezarritako prozedura honako hauei lotzen zaie: Kultura eta Kirol Sailak lehiaketa bidez emango dituen dirulaguntzak arautuko dituzten oinarri orokorrak onesten dituen Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuari, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak dirulaguntzen arloan arautzen dituen xedapenei eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Araudia onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak ezarritakoari, bai eta araudi aplikagarriak xedatzen duen guztiari ere.

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava</p> <p>www.araba.eus</p>	<p>Federazioaren Ziurtagiria (II Eranskina)</p>	<p>2021</p>
	<p>Certificado Federación (Anexo II)</p>	

Kultura eta Kirol Saila

Departamento de Cultura y Deporte

FEDERACIÓN ALAVESA DE		ARABAKO FEDERAZIOA
-----------------------	--	--------------------

ZIURTATZEN DU ■ CERTIFICA

Ondoren zehazten den kirol klubak edo taldeak honako datuak dituela:

Que el siguiente club o agrupación deportiva tiene estos datos:

Sozietatearen izena ■ Razón social

	IFZ	
	NIF	

Kirol diziplina
Disciplina deportiva

Arabako kirol federazio honi atxikita dago	<input type="checkbox"/>	Se encuentra adscrito/a a esta Federación deportiva alavesa.
---	--------------------------	--


(markatu X batekin ■ marcar con una X)

**Federazioaren
ordezkaria**
Representante
de la federación

Ordez kariaren sinadura
Firma del/la representante

ARABAKO FEDERAZIOAREN ZIGILUA
SELLO DE LA FEDERACIÓN ALAVESA

Orria ■ Hoja 1/1

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava</p>	<p>Kirol Klub eta Elkarteak Mantentzeko Dirulaguntza (III Eranskina)</p>	<p>2021</p>
	<p>Subvención para Mantenimiento de Clubes y Agrupaciones Deportivas (Anexo III)</p>	
<p>www.araba.eus</p>		

Kultura eta Kirol Saila

Departamento de Cultura y Deporte

**IBILGAILU PRIBATUETAKO JOAN-ETORRIEN GASTUA
GASTO POR TRASLADO EN VEHÍCULOS PRIVADOS**

ENTITATEAREN DATUAK ■ DATOS ENTIDAD

Izena ■ Nombre	
IFZ ■ NIF	

GIDARIAREN DATUAK ■ DATOS CONDUCTOR/A

Izena ■ Nombre	
NAN ■ DNI	

IBILGAILUAREN DATUAK ■ DATOS VEHÍCULO

Matrikula ■ Matrícula	
Plazen kopurua (gidaria ere barne) Número plazas (incluido conductor/a)	

IBILBIDEAREN DATUAK ■ DATOS TRAYECTO

Joateko data Fecha ida		Egindako km kopurua Kilómetros realizados	
Irteteko tokia joatean Localidad salida ida		Iristeko tokia joatean Localidad llegada ida	

Itzulerako data Fecha vuelta:		Egindako km kopurua Kilómetros realizados:	
Irteteko tokia itzultzean Localidad salida vuelta		Iristeko tokia itzultzean Localidad llegada vuelta	

DATU EKONOMIKOAK ■ DATOS ECONÓMICOS

Kilometroak guztira (joatea eta itzultzea) (x 0,29€/km) Número total kilómetros (ida y vuelta) (x 0,29€/km)	
Bidesarien zenbatekoa guztira (joatea eta itzultzea) Importe total peajes (ida y vuelta)*	
GUZTIRA ■ TOTAL	

*Nahitaezkoa da jatorrizko ticketak aurkeztea. ■ Es obligatorio adjuntar tickets originales.

Arduraduna
Responsable

Entitatearen arduradunaren
sinadura eta zigilua
Firma responsable entidad y sello

Orria ■ Hoja 1/1